



Azpeitiko Udala

AZPEITIKO HERRIAN ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO 2025EKO DIRULAGUNTZA DEIALDIAREN EBAZPENA ETA 2025EKO LEHEN ORDAINKETARI DAGOKION ZATIA ORDAINTZEA (25-25D / 2025ALOD / 2025DIRU0009)

Aurrekariak

Alkatetzak 2025eko ekainaren 6an emandako ebazpenaren bidez, Azpeitiko herrian etxebizitzak alokatzeko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak eta 2025 aldirako deialdia onartu ziren; deialdi hori 2025eko ekainaren 18an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Dirulaguntza horien xedea da biztanle-kolektibo jakin batzuei, euren ohiko bizilekurako etxebizitzaren alokairuari aurre egiteko, laguntza ekonomikoa ematea. Kolektibo horien artean daude, besteak beste, 18 eta 35 urte bitarteko gazteak, mugikortasun urria edo desgaitasun absolutua duten pertsonak, bananduak edo alargunak, eta 70 urtetik gorako pertsonak.

Oinarri arautzaileetan ezarritakoaren arabera, dirulaguntzak lehiarik gabeko konkurrentzia-araubidean ematen dira. Prozedura Udaleko Idazkaritza Sailak eta Azpeitia Berritzen, S.A. erakundeak izapidetu dute, eta Ekonomia Batzordeak, oinarrietan jasotako irizpideak aplikatuta, dagokion ebazpen-proposamena egin du.

Dirulaguntzen behin-behineko ebazpena Azpeitiko Udalaren egoitza elektronikoan argitaratu zen, eta interesdunei alegazioak aurkezteko epea eman zitzaien.

2025ALOD0006 espedientean, interesdunak alegazio bat aurkeztu du, adieraziz bere egoera ekonomikoa txarrera aldatu dela, eta hala ere, Udalak laguntza ukatzeko proposamena egin diola, oinarrietan ezarritako gehiengo dirusarrerara baldintza gainditzeagatik. Alegazioaren bidez, interesdunak bere egoeraren inguruabarrak kontuan hartzea eta dirulaguntza onartzea eskatu du.

Aurkeztutako alegazioa aztertu ondoren, laguntzaren ebaluazio organoak ondorioztatu du ez direla betetzen dirulaguntza onartzeko beharrezko baldintzak, eta ondorioz, ez dagokiola ebazpen-proposamena aldatzea.

Horrenbestez, aurkeztutako alegazioa ezestea eta behin-behineko ebazpenean jasotako ezezko proposamena berrestea proposatzen da. Hala ere, interesdunari jakinaraziko zaio, bere egoera ekonomikoa nabarmen okertu bada, beste laguntza-ildo batzuk (Gizarte Larrialdietarako Laguntzak, Etxebizitzarako Prestazio Osagarria edo antzekoak) eskura izan ditzakeela, dagokion administrazioaren aurrean izapidetuta.

Oinarriak 17. artikuluan ezarritako prozedura izapidetu ondoren, Alkatetzak ebazpen arrazoitua eman beharko du aurkeztutako eskaera bakoitzari buruz.

Hori horrela izanik, eta Alkatetzari dagokion eskumena baliatuz, laguntzen oinarri arautzaileetan jasotakoarekin bat etorritz, **LEIRE GOENAGA UZKUDUN**, Udalaren alkateordeak (Alkatetzak 2025eko abenduaren 16n emandako eskuordetze ebazpena), **ERABAKI DUT:**

1.- Jarraian adierazten diren **dirulaguntzak-ematea eta ordaintzea**, Azpeitiko herrian etxebizitzak alokatzeko dirulaguntzaren 2025eko deialdiari dagokiona. Horretarako 40.000,00 euroko gastua xedatuko da zerrendan azaltzen diren onuradunei jarraian zehazten den kontu-sailaren kargura: “Ayudas alquiler/Alokairu laguntzak” 1.1100.480.152.30.02. 2025.

Ordaintzea zerrendan azaltzen diren onuradunei jarraian adierazten diren kopuruak, aipatutako dirulaguntzaren 2025eko lehendabiziko zatiaren ordainketari dagozkionak.



Azpeitiko Udala

Izan ere, ordainketa bi zatitan egingo da: lehenengo zatian onuradunak 2025eko abenduaren 20era arte aurkeztutako justifikazioaren arabera. Bigarren ordainketan laguntzaren gainontzekoa ordainduko da, behar bezala justifikatuta.

Azpeitiko herrian etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak 2025

(25-25D / 2025ALOD / 2025DIRU0009)

Deialdia: (2025eko ekainak 18ko GAOan argitaratuak 114 zk.)

-BEHIN BETIKO EBAZPENA-

Zb	Data	Espedientea	NAN	Onartua	Onartutako zenbatekoa	1.ord.	2.ord.	Baja eman beharreko kopurua
2	2025/06/26	2025ALOD0002	18166727Q	Bai	3.840,00 €	2.880,00 €	960,00 €	0,00 €
3	2025/07/10	2025ALOD0003	72417517Q	Bai	2.970,00 €	2.970,00 €	0,00 €	0,00 €
7	2025/09/11	2025ALOD0007	Y8902848E	Bai	1.050,00 €	1.050,00 €	0,00 €	0,00 €
8	2025/09/11	*2025ALOD0008	44172062X	Bai	3.000,00 €	0,00 €	3.000,00 €	0,00 €
9	2025/10/06	*2025ALOD0009	15090097G	Bai	3.510,00 €	0,00 €	3.510,00 €	0,00 €
10	2025/10/14	2025ALOD0010	44157051H	Bai	3.600,00 €	3.600,00 €	0,00 €	0,00 €
11	2025/10/15	*2025ALOD0011	72557585Z	Bai	4.200,00 €	0,00 €	4.200,00 €	0,00 €
GUZTIRA:					22.170,00 €	10.500,00 €	11.670,00 €	

**2025ALOD espedienteek, alokairu dirulaguntza BALDINTZATUTA onartu zaie; Eusko Jaurlaritzak igorritako GAZTELAGUN-EMANTZIPA-EPE alokairu dirulaguntzen ebazpenak aurkeztu behar dituzte, non alokairu laguntza hauek kobratzea dagozkien edo ez adierazten dutenak.*

Ebazpen hauen arabera, Udaleko dirulaguntza edo dagokion laguntza osagarria jasoko dute.

2.-. Jarraian adierazten diren dirulaguntzak ez ematea, Azpeitiko herrian etxebizitzak alokatzeko dirulaguntzaren 2025eko deialdiari dagokiona.

Azpeitiko herrian etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak 2025

(25-25D / 2025ALOD / 2025DIRU0009)

Deialdia: (2025eko ekainak 18ko GAOan argitaratuak 114 zk.)

-BEHIN BETIKO EBAZPENA-

Zb	Data	Espedientea	NAN	Onartua	Arrazoiak
1	2025/06/25	2025ALOD0001	15379081Q	Ez	3.artikulua-Eskatzaileen betekizunak d. Bizikidetzaren Unitateko dirusarreraren muga baldintza ez da betetzen. Gehiengo dirusarrerak gainditzen dira.
4	2025/07/22	2025ALOD0004	15085882K	Ez	3.artikulua-Eskatzaileen betekizunak e. Kapital errentetatik eratorritako errendimendu gordinen zenbateko baldintza ez da betetzen. Kapital errentetatik eratorritako errendimendu gordinen zenbatekoa 601,10€ baino haundiagoa da.
5	2025/09/08	2025ALOD0005	15124837Z / 15985850E	Ez	3.artikulua-Eskatzaileen betekizunak



Azpeitiko Udala

					d. Bizikidetz Unitateko dirusarreraren muga baldintza ez da betetzen. Gehiengo dirusarrerak gainditzen dira.
6	2025/09/10	2025ALOD0006	45485149G	Ez	3.artikulua-Eskatzaileen betekizunak d. Bizikidetz Unitateko dirusarreraren muga baldintza ez da betetzen. Gehiengo dirusarrerak gainditzen dira. Aurkeztutako alegazioaren balorazioa: Egiaztatu da interesdunaren egoera ekonomikoa aldatu dela; hala ere, aurkeztutako dokumentazioaren arabera, eskatzailearen diru-sarrerek gainditu egiten dute oinarri arautzaileetan ezarritako gehieneko muga. Ondorioz, ezin da dirulaguntza aitortu, deialdiaren oinarriak nahitaez aplikatu beharreko arauak direlako, eta administrazioak ez duelako horiek alde bakarrez aldatzeko edo salbuespenak ezartzeko ahalmenik. Dirulaguntza hauen helburua kolektibo zaurgarriek etxebizitzaren alokairuari aurre egiteko dituzten zailtasun ekonomikoak arintzea denez, eta kasu honetan baldintza hori betetzen ez denez, ez da bidezkoa laguntza ematea, berdintasun-printzipioa eta deialdiaren oinarriak errespetatzeko.

3.- Erabaki hau Udalaren web orrian eta Estatuko Dirulaguntzen Datu Basean argitaratuko da. Era berean, argitaratzen den egunean bertan, Udalak abisu bat bidaliko die eskatzaile guztiei posta elektronikoz, ebatzitako laguntzen berri emateko.

4.- Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsua aurkezteko Alkatetza honi, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzearen berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.

Azpeitian, sinadura elektronikoaren datan.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2025DIRU0009-Behin betiko ebazpena/Behin betiko ebazpena ()